

Hizkuntza akademikoaren ikaskuntza translanguaging pedagogikoaren bidez bigarren hezkuntzan: interbentzio bat Hego Euskal Herrian

Tesiaren egilea: Artzai Gaspar Arraiza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Hezkuntza Zientziak

Doktorego-programa: Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea

Jakintza-arloa: Hizkuntzaren Didaktika, Hizkuntzalaritza Aplikatua

Tesi-zuzendaria: Karin van der Worp

Tesiaren laburpena¹:

Hezkuntza eleaniztunaren arloan hizkuntza akademikoa oso elementu garrantzitsua da. Hainbat ikerketak ondorioztatu dutenez, hizkuntza akademikoaren didaktika modu egokian planteatzea ezinbestekoa da testu akademikoaren ulermenerako, eskola-arrakastarako eta ikasleek gizarteko alor formaletara sarbidea izan dezaten bermatzeko. Azken ikerketek hizkuntza akademikoaren teorizazio berri bat eskaintzen dute. Teorizazio berri horren adibide da *Core Academic Language Skills* (CALs) proposamena, hizkuntza akademikoarekin loturiko zazpi abilezia barnebiltzen dituena. Aldi berean, *translanguaging* pedagogikoaren abantailak ertz askotatik ikertu dira. Tankera horretako estrategia pedagogikoek hizkuntzen jabeak azkartu, egokitu eta bultzatu dezakete, baita hizkuntza akademikoaren irakaskuntzaren kasuan ere, kontzientzia metalinguistikoa eta hizkuntzen arteko ezagutze transferentziak areagotuz.

Ikerlan honek CALs proposamenean eta *translanguaging* pedagogikoan oinarritzen den hiru asteko interbentzio pedagogiko bat proposatzen du Euskal Herriko DBHko lehenengo eta hirugarren ikasturteetarako. Interbentzioaren bidez, ikasleek hizkuntza akademikoaren inguruan lan egin behar dute *translanguaging* pedagogikoaren bidez. Izan ere, interbentzioan hiru hizkuntza barnebiltzen dira, eta horien arteko lan konparatiboa bultzatzen da: euskara, gaztelania eta ingelese. Ikerketaren helburua interbentzio pedagogikoaren efektuak hiru alderditan analizatzea da: konpetentzia metalinguistikoaren, konpetentzia linguistikoaren eta matematikako zein zientzietako edukien konpetentziaren garapenean. Horretarako, diseinu kuasiesperimental bat bideratu da, eta bi talde bereizi dira: talde esperimentalak eta kontrol-taldea. Halaber, metodo mistoak hautatu dira, instrumentu kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiliz.

1. Tesiaren izenburua ingelesez: *Learning academic language through pedagogical translanguaging in secondary education: an intervention in the Southern Basque Country.*

Emaiztekerakusten dute CALSean eta *translanguaging* pedagogikoan oinarrituriko interbentzioak efektu positiboak dakartzala aipaturiko kompetenzietan, batez ere kompetentzia metalinguistikoaren eta linguistikoaren garapenetan, bi ikasturteetan. Paraleloki, interbentzioaren ondotik ikasleek hausnarketa interesgarriak planteatzen dituzte ikasitakoaz, eta pertzepzio positiboak garatzen dituzte lan egiteko modu honetaz. Horrez gain, ondorioztatu da kompetentzia metalinguistikoa eta linguistikoa elkarri loturik daudela, eta ikasleek hiru hizkuntzetan dauzkaten kompetentzia linguistikoek abilezia metalinguistikoa determinatzen dutela. Era berean, hainbat lotura ondorioztatu dira kompetentzia linguistikoaren eta abilezia matematikoaren/zientifikoaren artean.